

Legazpin hainbat jarduera antolatu dituzte liburutegien eguna ospatzeko

Herriko gurasoek etxean irakurtzeko gogoa pizteko gida eskuratu dezakete

Legazpi. Datorren asteazkenean, liburutegien eguna ospatzen da. Hori dela eta, hainbat ekintza antolatu dira. Programa hau Eusko Jaurlaritzaren babesean eta Irakurri kanpainaren barne prestatu da. Helburua liburutegiko zerbitzuak herritarrengana hurbiltzea da.

Hilaren 24rako nagusiei zuzendutako ekintza prestatu da. Jendeari janari errezeta bat idazteko eta liburutegian uzteko gonbitea luzatuko zaio. Bildutako lanak behar bezala koadernatu eta ikusgai jarriko dira. Gainera, errezeta entregatzen duenak opari bat jasoko du. Honekin lotuta, Haur Hezkuntzako ikasleak liburutegian izan ziren atzo. Sukaldaritza liburuak ezagutu zituzten, elikaduraz hitz egin zuten eta opari bana jaso zuten. Bestalde, egunotan lagun edo senideren bat liburutegira gonbidatzen duenak opari bat jasoko du. Familiei zuzendutako jarduera bat ere antolatu da. Irakurtzeko gogoa pizteko gida kaleratu da eta liburutegian eskuragarri da. Jasotzera doazenei opari bana ematen zaie.

Bukatzeko, gaztetxoentzat argazki digitalen lehiaketa antolatu da. Helburua 12 eta 16 urte bitarteko gazteak irakurketara hurbiltzea da. Parte hartzaileek liburuekin eta irakurketarekin zerikusia duten argazkiak aurkeztu behar dituzte CD batean grabatuta. Guztiek opari bana jasoko dute.

Irudi onenen egileek, berriz, sari bikainak jasoko dituzte eta euren lanak Interneten ikusgai jarriko dira. Gainera, katalogo batean argitaratuko dira. Lanak azaroaren 1etik 15era entregatu behar dira eta azaroaren 30ean emango dira ezagutzera irabazleen izenak. >a.z.